



# #JesusGureanEreBidelagun

NERABEZARO - AURREKOAK

DELEGACIÓN DE ANUNCIO Y CATEQUESIS  
FEDE ZABALKUNDE ETA KATEKESIRAKO ORDEZKARITZA



Aditu duzu noizbait Mendekosteri buruzko zerbait? Kristauontzat, urteko jairik garrantzitsuenetakoa da; Espiritu Santuaren, hau da Jainkoaren Espirituaren, etorrera ospatzen da.

Jainkoaren Espiritua hemen dago orain, hemen dago zurekin, gutariko bakoitzarekin; gertu dago eta indarra, maitasuna eta jakinduria eman nahi digu. Zatoz, Jainkoaren Espiritua!

**“Espiritu Santuaz bete ziren eta hitz egiten hasi”**

Sakatu bideoan ebanjelioa entzuteko.  
(Eg. 2, 1 -11)



Azalpen laburra (laguntzailearentzat):

Zeruko Aitarengana itzuli aurretik, Jesus berpiztuak ikasleak bisitatu zituen eta Espiritu Santua laguntzeko bidaliko ziela agindu zien.

Espiritu Santuak adorez eta fedez bete zituen ikasleak, Berri Onak besteei emateko ahalmena emanaz. Hasteko, guregatik hil eta bizi berrira piztu zen Jesusen berri eman zieten besteei. Egun honetan, Espirituaren dohainari esker, ikasleak hizkera desberdinak zituztenekin ere komunikatzen hasi ziren.

Mendekoste-egunez, Pedro apostoluak jendetzaren aurrean hitz egin zuen. Bataiatzeko eta Espiritu Santuaren dohaina hartzeko eskatu zien. Lagun ugari bataiatu zen egun horretan. Apostoluek, gero, makina bat lagun bataiatu zuten. Eskuak ezartzen zizkieten, Espiritu Santua har zezaten, indarra eta ausardia emateaz batera.

#JesusGureanEreBidelagun

### ZEIN DA GURE PROPOSAMENA?

Collagea egin, Ebanjelioan agertzen suzko mihiak irudikatzeko. Gutariko bakoitzaren gainean jartzen diren suzko mihiak. Saia zaitez Espiritu Santua bere indarraz, bistakoa ez den bere presentziaz, bere eraginaz irudikatzen.

Ohiko erara egin dezakezu, ebakinez, itsasgarriaz, guraizeez eta koloreez baliatuz.

Ordenagailuan edo tabletean egin dezakezu, <https://piccollage.com/> bezalako appak edo antzeko beste batzuk erabiliz.

**Batera jarri!, gainerako taldeekin, azaldu eta beste batzuei ere aurkeztu nahi badiezu, #JesusGureanEreBidelagun bidez egin.**



Collagea egiten duzun bitartean, entzun abestia:  
(Sakatu bideoan)

Ven Espíritu de Dios y de tu amor  
enciende la llama.  
Ven Espíritu de Amor,  
ven Espíritu de Amor.

Beste urrats bat aurrera egiteko eta pixka bat hobeto ezagutzeko zer esan nahi duen Mendekostek, jolas hau proposatzen dizugu.

**ESCAPE  
ROOM**

Gai honetan sakontzeko modu berri eta desberdina.  
Sakatu irudian

**IRAKURTZEKO**

**“Espiritu berean bataiatuak izan gara, gorputz bera osatzeko”.**

*San Paulo apostoluaren gutuna Korintoarrei (12, 3b-7. 12-13)*

*Anai-arrebok: Inork ezin du esan: «Jesus da Jauna», Espiritu Santuak eraginik ez bada. Era askotakoak dira dohainak, baina Espiritua bat bakarra; era askotakoak zerbitzuak, baina Jauna bat bakarra; era askotakoak egintzak, baina Jainkoa bat bakarra, guztiei egintza guztietara eragiten diena.*

*Gorputzak, bat izan arren, atal asko ditu; baina atal guztiek, asko izan arren, gorputz bat osatzen dute. Gauza bera gertatzen da Kristorekin ere. Gu guztiok, judu nahiz jentil, esklabo nahiz libre, Espiritu bat beraz izan gara bataiatuak; gorputz bat bakarra egiteko, eta guztioi Espiritu bat bera isuri zaigu.*



Espiritu Santuaz beterik gaudenean, Espiritu Santuaren dohain eta fruituak geure bizitzetan agertzera ematen ditugu.

**Zer dira dohain horiek? Badakizu zeintzuk diren dohain eta fruitu horiek?**

Gogoratu escape roomaren jokoan atera egin zaizkigula. Memoria pixka bat egiten lagunduko dizugu. Arrasto batzuk utziko dizkizugu

\_\_ K \_\_ \_\_ A

\_\_ E M \_\_ A

A \_\_ K \_\_

Z \_\_ TZ \_\_

\_\_ U \_\_ A

\_\_ D T \_\_ N \_\_

J \_\_ K \_\_ G \_\_ K

B \_\_ G \_\_ R \_\_



Horrelako dohainen bat duzula sentitzen duzu?  
Zein? / Zeintzuk?  
Zer egin dezakezu Espiritu Santuaren dohain/fruitu hori familiarekin, adiskideekin... konpartitzeko?

Azalpen laburra (laguntzailearentzat): Guztiok ditugu dohain horiek; besteekin nola erabiltzen ditugun da kontua.

Bilera amaitzeko, otoitz egin:

## MENDEKOSTE-EGUNA, JAUNAREN ESPÍRITUAREN EGUNA

Jaunaren Espiritua.  
Gaur zuregana noa,  
nire bizitza osoan  
laguntza emateko eskatzera.  
Leial iraun dezadala  
Jainkoaren Hitza betez,  
eta egunez egun,  
Berak irakatsitakoaren arabera bizitzen.  
Familiaren, adiskideen eta  
ezagunen alde eskatzen dizut.  
Baita sufritzen daudenen,  
bakarrik edo gaixorik direnen alde ere.

Eman indarra, anai-arreben mundua,  
zuzentasun eta bakezko mundua, egiteko.  
Jesusen antzera bizi nahi dut.  
Eskerrik asko nire ondoan izateagatik.

Mendekoste-egunez, Jesusen Espirituak  
gure bihotzak betetzen ditu berriro,  
bere antzera bizitzen ikas dezagun.  
eska iezaiozu Espiritu Santuari  
zeure familiarekin, zeure adiskideekin,  
zeure buruaren alde.  
Bere indarraren eraginez,  
mundu hobea egin dezakegu!

MARCELO A. MURÚA